

## BESTELAKO XEDAPENAK

### KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

## 156

*EBAZPENA, 2024ko abenduaren 17koa, Kulturako sailburuordearena, 2024ko urriaren 30eko Ebazpena aldatzen duena. Horren bidez, gauzazko laguntzak ematen dira euskal kultura-ondarea katalogatu, digitalizatu eta kontserbatzeko, Euskariana euskal kulturaren atari digitalaren bidez hedatzeko.*

2024ko ekainaren 25eko EHAAn (124. zenbakia), Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2024ko ekainaren 12ko Agindua argitaratu zen. Agindu horren bidez, euskal kultura-ondarea katalogatu, digitalizatu eta kontserbatzeko gauzazko laguntzak arautzen dira, Euskariana euskal kulturaren atari digitalaren bidez hedatzeko. Horrez gain, 2024an proiektuak aurkezteko deialdia ere egiten da.

Eskabideak aurkezteko epea 2024ko uztailaren 26an amaitu zen, Aginduaren 8.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2024ko urriaren 30eko Ebazpenaren bidez (2024ko azaroaren 11ko EHAA, 219. zk.), euskal kultura-ondarea digitalizatzeko 2024rako dirulaguntzen deialdia ebatzi zen.

Ebazpen horren ondoren, akatsak antzeman ziren Centro Internacional de Cultura Contemporánea SAre (A20762233) 006-KOD-2024 espediente-kodea duen proiektu esleipendunaren inbentarioan. Akats horiek ere 2024ko abenduaren 4an jakinarazi zituen erakunde onuradunak, eta inbentario berria eta proiekturako kalkulaturako aurrekontua erantsi zituen. Aurrekontu hori 2.499,48 eurotan murriztu da hasieran aurreikusitakoarekin alderatuta, eta, beraz, proiektuaren azken kostu zenbatetsia 5.991,41 eurokoa da.

Horrela, deialdia arautzen duen Aginduaren 15.8 artikuluekin bat etorritz, eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 25. artikuluekin bat etorritz, organo honek komenigarritzat jotzen du Kulturako sailburuordearen 2024ko urriaren 30eko Ebazpenaren bidez Centro Internacional de Cultura Contemporánea-ri emandako gauzazko dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

Ondorioz, 006-KOD-2024 proiekturako aurreikusitako aurrekontuaren murrizketa ikusita, hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Centro Internacional de Cultura Contemporánea SAri emandako gauzazko dirulaguntzaren baldintzak aldatzea, deialdia arautzen duen 2024ko ekainaren 12ko Aginduaren 15.8 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta proiektuaren kostu zenbatetsia 5.991,41 eurora murriztea.

Bigarrena.– 2024ko urriaren 30eko Ebazpenaren I. eranskina –Onartutako proiektuak– aldatzea, ondoren adierazten den moduan, eta eranskinean zerrendatzen diren pertsonai/erakundeei gauzazko dirulaguntza zenbatetsiak ematea, ondoren zehazten diren proiektuak gauzatzeko:

I. ERANSKINA

ONETSITAKO PROIEKTUAK

| Eskatzailea                                                  | Espedientea  | Proiektua                                                                                              | Balio zenbatetsia (eurotan) |
|--------------------------------------------------------------|--------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------|
| Centro Internacional de Cultura Contemporánea SA             | 006-KOD-2024 | Iñigo Salaberriaren ikus-entzunezko funtsa katalogatzea, digitalizatzea, kontserbatzea eta hedatzea II | 5991,41                     |
| Euskal Herriko Bertsozale Elkartea EHBE                      | 005-KOD-2024 | Bertsozale Elkartearen Argitalpen Bilduma (1988-2016)                                                  | 9.553,76                    |
| Fundación Eresbil                                            | 002-KOD-2024 | Partituras de la colección de Eresbil pertenecientes al patrimonio cultural vasco                      | 9.865,60                    |
| Fundación Eresbil                                            | 003-KOD-2024 | Rollos de papel perforado pertenecientes al fondo Echevarrieta - Larrinaga                             | 19.918,43                   |
| Galtzaundi Euskara Taldea                                    | 012-KOD-2024 | Galtzaundi aldizkariaren funtsa digitalizatzea eta katalogatzea                                        | 8.662,00                    |
| Goiena Komunikazio Taldea, Koop. E.                          | 010-KOD-2024 | Arrasate Telebistaren ikus-entzunezko funtsa digitalizatu eta katalogatzea                             | 15.602,00                   |
| Gerediaga (Durangaldeko Adiskideen Gerediaga Elkartea)       | 001-KOD-2024 | Alejandro Landabururen funtsaren digitalizazioa                                                        | 12.390,60                   |
| Prov Franciscana de Arantzazu Arantzazuko Frantziskotar Prob | 004-KOD-2024 | Creación de la Fonoteca del Santuario de Arantzazu: Catalogación y Digitalización                      | 9.381,95                    |
| Guztira                                                      |              |                                                                                                        | 91.365,75                   |

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, lehen jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 17a.

Kulturako sailburuordea,  
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.